

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

ALICE

dibulgazioaren lurraldean

Lewis Carroll idazle britainiarrak ez du gomendiorik behar. Haren bi lan ospetsuenak, Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian eta Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena, oso liburu ezagunak dira, eta matematikaren esparruarekin duten loturaz asko idatzi da. Alice Liddell umearentzat (eta haren ahizpentzat) asmatutako ipuinak dira, baina ez dira ipuin arruntak; oso surrealistikak dira, eta logikan oinarrituak.

Bi liburuak irakurtze hutsarekin nekez harrapatzen da idazleak eman zion esanahi osoa. Matematikako erreferentzia asko dituzte, literaturakoak, garaiko kulturarenak eta, kasu batzuetan, Liddell familiarenak; interpretazio psikologiko asko ere aurkitu (edo bilatu) izan zaizkie testuei, haietako batzuk kontrajarriak, eta zalantzan dago zenbateraino diren zuzenak interpretazio horiek. Baina psikologia ahaztuta ere, zaila da testuak gordetzen duen guztia harrapatzea, eta horregatik idatzi zuen Martin Gardner dibulgatzaile ospetsuak *The Annotated Alice* liburua, Carrolren liburuen azalpen eta argibideak emateko.

The Annotated Alice Carrolren bi liburu ospetsuen argitalpen berezi bat da. Bi testuak osorik daude, eta Gardnerren ekarpenak alboan eraku-

tsitako glosak dira. Eraitza oso argitalpen gomendagarria da: erreferentziak bi liburu, dibulgatzaile handi batek aztertuta.

Eta badira beste liburu interesgarri asko Aliceren munduarekin zerikusia dutenak. Esate baterako, Robert Wilson matematikariak *Lewis Carroll in Numberland* idatzi zuen. Lewis Carrolren biografia bat da, haren matematikako joko eta buru-hausgarrien zaletasunean oinarrituta. Carroll oso pertsonaia interesgarria izan zen. Benetako izena Charles Lutwidge Dodgson zuen; gizon ilun samarra zen izaerari dagokionez (pederasta izatetik gertu zegoen, batzuen arabera), baina istorioen asmatzaile izugarri argia ere bai. Wilsonek haren bizitza eta garai hartako gizartea aztertzen ditu liburu horretan. Eta Carrolren mundu matematikoaren gida-liburu ona da.

Eta ezin da Aliceren mundua utzi dibulgazioan izan duen eragina aipatu gabe; Carrolren idazkeraren eta logikaren arteko lotura inspirazio handia izan baita. Adibide gomendagarri bat *Alice in Quantumland* liburua da, Robert Gilmore idazlearena. Liburu horretan, Alice atomo bat baino txikiagoa den mundu miregarri batera doa; Gilmorek mekanika kuantikoaren dibulgazioa egiten du Carrolren estiloa imitatuz. ●

i

The Annotated Alice

Lewis Carroll / Martin Gardner

Penguin

198 x 129 mm

ISBN: 978-01-40289-29-9

Lewis Carroll in Numberland

Robert Wilson

Allen Lane

218 x 134 mm

ISBN: 978-07-13997-57-6

Alice in Quantumland

Robert Gilmore

Springer

236 x 163 mm

ISBN: 978-03-87914-95-4

